

JIM THOMPSON.—*1280 arima*. Itzultzailea: Xabier Olarra.
Literatura beltza. Elkar. Donostia, 1986.

Argitaratzaileek azalean diotenez, *1280 arima* bortizkeria, kirtenkeria, sexu eta umorez jositako eleberria duzu. Bizi garen

garaian gaien aldresbeskeria eta hizkeraren zatarkeria inorentzat eskandalagarri bihurtzea zaila bada ere, inork lortzekotan Jim Thompsonnek lortu du.

Guzti hori nolabait gozatzeko, arintzeko geldi daitekeen errekurtsio bakarra da. Eta obra honen zenbait pasarteri umorea dario, umore beltz samarra bada ere.

Bertan detektiberik azaltzen bada ere, ez duzu hau detektibe istorio klasikoa. Herri koxkor bateko (1280 arima besterik ez du) gorabeherak kontatzean, gizakiaren gaiztakeriarako isuria, botere paranoiaren ondorioak eta esperantzarik gabeko mundu honen barnea azaltzen zaizkigu.

* * *